

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroengana, produktuak donatzen dituzteengana, iristeko web orri bat sortuko dugu, bertan guri buruzko informazioa eskuragarri izango dute eta zer, nola eta non donatu daitekeen ere ikusi ahalko dute. Hortaz gain, lehen aipatu bezala, hainbat udaletxeetan bilguneak jartzea pentsatu dugu, bertan jendeak nahi dituen produktuak edo dirua donatu ahal izateko. Bertan gu presentzialki egotea penstatu dugu, gure elkartearen berri eman ahal izateko eta jendeari laguntza eskaintzeko. Gure elkarte bost pertsonen osatzen dutenez, ezingo gara bilgune guztietan presentzialki egon ahal izango, beraz asko eskertuko genuke jendea bolondres bilguneetan egotea animatzea, horretarako gure web orrian izena ematea besterik ez dute izango. Edozeinek izan daiteke bolondres, 15 urtetik gorakoak badira. Presentzialki egingo ditugun bilketak segurtasun neurriak betez, distantziak, pilaketak sahiesten... izango dira, beraz inor ez dadila kezkatu alde horretatik.

Azkenean krisi honek denoi eragin digu, eta gehien kaltetu dituen pertsonen laguntza garrantzitsua da arazo honi buelta eman ahal izateko, beraz eskuak zabalik jasoko ditugu bolondres izateko animatzen diren guztiak.

Bestalde, beste bezeroekin, lehen aipatutako ONG-ekin kontaktatzeko, beraien ofizina edo bilguneetara joatea pentsatu dugu, eta horrela, bertara eraman ahal izango ditugu bildutako produktu guztiak. Bitartekariak garenez, ez dugu zuzeneko kontakturik laguntza hau jasotzen dutenekin, baina hauek ere gure bezeroak dira.